

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko ekainaren 27a

*



Tuteran altzariak berritzeko proiektua dago martxan Gizalanen eskutik.

Baztertuen aldeko proiektuak abian

■ CREINET izenburupean, estuasunez —estuasun ekonomiko eta soziala— bizi diren zenbait lagun lanean eta gizartean sartzeko hiru proiektu abian dira Nafarroan, Nafarroako Gobernuaren eta Europako Fondo Sozialaren eskutik, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP) aholkularitzarekin. Errotxapea auzoan kokatua dagoen Lanean eta Gizartean Sartzeko Zentro Pilotua da lehenen-

goa, eta 60 pertsonarekin ari dira lanean, gehienak emakumeak. Gaztelan elkarrekin kudeatzen du *Biciclos* izeneko bigarren proiektua. Hamasei mutil gaztek bizikletak konpontzen ikasi dute, alor horretan lan egin ahal izateko. Azkenik, Tuteran, eta Gizalanen eskutik, ijitoekin lan egiteko proiektua dago martxan. Altzariak berritzen ikasi dute, besteak beste, proiektu horretako kideek. ■

Etengabeko udaberriaren herria

Zubian barna

BINGEN AMADOZ



ETENGABEKO udaberriaren herrian gabezia askoren artean bizi da jende xehe gehien-gehiena, baina bertako bizimodu gogorak hala erakutsita inor gutxi da ergel.

Kazetari askok herrien zapalkuntzan duten partaidetza nolatan den ezaguna.

Atitlaneko lakua ezagutu dudan tokirik ederrenetarikoa da zalantzarik gabe. Panajacheletik Atitlaneko Santiagora txalupan nindoala, hizketan hasi nintzen bertako gizon batekin. Hango eta hemengo kontuak atera ziren elkarri galdezka.

Sumendien artean ginenez, haien berri ematea eskatu nion lehendabizi. Ze lanetan aritzen ginen ere galdetu genion batekin besteari. Kazetaria naiz, nik. Kamioneta-laguntzailea, berak.

Hizkuntzak aipagai izan ziren gero eta herrien nortasunak. Tzutuhil etnikoa zen bera, Santiago Atitlaneko guztiak bezalaxe. Tzutuhilen ingurua zein zen galdetuta beste batzuen artean Panabaj herrixkaren izena atera zuen, alegia duela zenbait urte armadaren sarraski ikaragarria jasan zuen tokia. Ezagutzen dut izen hori, esan nion. Bada-

kizu! gertatu zenarengatik. Eta oraingoan nola dago egoera, bota nion, auzart. Bere erantzunak ez zidan aurrerago joaterik utzi. Zure herrian ere gobernuaren aldekoak dira kazetariak?

Diruz usteldurik eta aldi berean jakin-gabekeria maisu, mundu aberatseko hainbat turistak paisaiaren edertasuna jasotzeko moduan daude eta etengabeko udaberriaren herriak bizilagunak di-tuenik ez omen dakite.

Europa eta Amerika aberatsa noraino izan daiteken itsu.

Rio Dulcetik itsasoz egin beharra dago nahitanaheez Livingstonerako bidea. Naturaren handitasuna txalotzeko parada ederra eskaintzen zaigu bidaian. Lau lagun gindoazen txalupan. Gidari indijena, Irlandako laguna, portuan ezagututako norvegiar emakume bat eta laurok.

Norvegiarra batetik bestera zebilen Hego ta Ertamerikan barna, gazteleraz tutik ere jakin gabe. Perutik heldu berria zen. Ginen tokitik ze aldetara mugituko nintzen galdetu zidan; Chiapasera!, erantzun nion. Harridurazko bere aurpegia ikusita, berriz ere errepikatu be-

har izan nion: Chiapasera! Eta hori zer da? Non dago? Berak. Orduan nik bera baino askoz ere harrituago: Bainan, ez duzu Chiapas ezertxo ere aditu, te-
lebistan, egunkarietan? Berak ergel-
itxura harturik galdetu zidan ia zergatik izan behar zuen ezaguna toki hori. Iraultza bat dago han, arrapostu nion nik. Iraultza? eta zertarako egiten dute ba iraultza? izan ziren bere hitzak.

Rio Dulceko itsas-adarraren bazterretan queqchi indijenek beren etxetxo umilak dituzte, egurrez eta palmondoz eginak. Bizitoki apal, xume, txiroak edozein begitarako. Ondo-ondoan Guatemalako aberatsek eraiki dituzte beren etxalde dotore bezain eskandalugarriak, etxolen artean egonik.

Paisaiaren edertasunak liluraturik zeukan norvegiarra eta pailazoak era-kusten zizkigun behatzez, begiak zabal-zabalik.

Ez al dituzu ikusten, esan nion, ondo-ko etxetxo pobre, ugari horiek eta ze tarte handia dagoen batzuen eta bes-teen artean. Beharbada, horregatik egiten dute iraultza Chiapasen, tirokatu nion. X

KONTZERTUAK

Tutera: Raskatu, Somoskai eta M-Bit rock taldeek kontzertua eskainiko dute gaur Yehuda Ha Levi plazan, gaueko 10:30etatik aurrera.

Iruñea: Scorpions taldeak kontzertua eskainiko du igandean Anaitasuna kiroledegian. Aurretik Desafio taldeak joko du. Kontzertua arratsaldeko 8:00etan hasiko da. Sarrerak 2.800 pezeta balio du, aurretik erosiz gero 2.500.

Lizarrak: Mikel Andueza eta Mauro Urriza Quartet taldeak kontzertua eskainiko du herriko Kontserbatorioan, gaueko 9:00etatik aurrera.

Iruñea: One More Time taldeak kontzertua eskainiko du Gazteriaren Etxean, gaueko 10:00etatik aurrera.

ANTZERKIA

Zizur Nagusia: T'Ombigo Teatro antzerki konpainiak *Balada tier-na de un gamusino* lana antzertuko du Kultur Etxean gaur, gaueko 10:00etatik aurrera.

Tafalla: La Traperak konpainiak *Feliz acontecimiento* antzezlan taularatuko du gaur, gaueko 10:00etatik aurrera, herriko Kultur Etxean, eta Kultur Patronatuak antolatuta.

Viana: TEN-Pinpinpauza antzerki taldeak *Los caminos a nunca jamás* lan berria aurkeztuko du, arratsaldeko 8:00etatik aurrera.

ERAKUSKETAK

Iruñea: Natxo Zenborainen karikatura fotografikoak ikusgai dira uztailaren 15era bitartean, Primi aretoan.

Iruñea: Lekune galerian Florencio Alonsoren margoak ikus daitezke, uztailaren 4ra bitartean. Astelehenetik ostiralera, goizez eta arratsaldeko dago zabalik.

Burlata: Kultur Aretoan Juan Bautista Ilundainen margoak ikusgai dira, igandera bitartean.

LEHIAKETAK

Iruñea: Nafarroako Antzerki Eskolak Umeentzako Antzerki Testuen VI. Lehiaketa antolatu du. Hemezortzi urtetik gorakoek parte har dezakete. Egile bakoitzak argitaratu gabeko hiru testu aurkeztu ahal izanen ditu gehienez, gaztelaniaz edo euskaraz. Parte hartu nahi duenak Nafarroako Antzerki Eskolara (Iruñeko San Agustín, 5) bidali behar ditu lanak, abuztuaren lehena baino lehen.

BESTELAKOAK

Iruñea: Nafarroako Antzerki Eskolak haurrentzako tailerra antolatu du, joko dramatikoak ikasteko. Lau eta hamabi urte bitarteko haurrei dago zuzendua tailerra, eta euskaraz eta erdaraz izanen da, abuztuaren 5etik irailaren 5era bitartean. Parte hartu nahi duenak eskolan bertan eman behar du izena.

nafar kronika

Pello Argiñarena

Rafael kontent dago

Rafaelek goizero hitz egiten du harekin. Kezka zaharrak berri ditu oraingoan ere. «Lasai egon Jesus, web orrialdearena ez da berriro gertatuko eta finala Labriten ez ospatzea lortu dut». Bilera bat zela eta, bart lo gutxi egin badu ere Rafael kontent dago.

Oraindik hamarrak dira eta Miguel hirugarren aldiz hurbildu da bere bulegora.

«Aizak Rafa! Fustiñanara noa kiroledegi berria inauguratzera. Han geldituko naiz bazkaltzen. Beraz, ondo zaindu jauregia, hi!».

Kafea hartzeko betarik gabe ere, kontseilari bakoitzarekin egunero duen solasalditxoari hasiera eman dio.

Gure protagonistak, ezkerreko eskuarekin alderdia eta eskuinekoarekin gobernua beste inork baino hobe zuzentzen ditu.

Eguzkitan kixkali gabe, itzalean lanean aritzea nahiago du soka guztiak lotzen. Zeharo lanpeturik egon arren Rafael kontent dago.

Konturatu gabe hamabiak egin zaizkio. Diarioko *El Espectador*-ekin eta Ganbarako presidentearekin hitzordua egin du. «Ekonomia inoiz baino hobekiago dagoela sinistarazi behar diegu nafarrei zuen orrialdeen bitartez». Bilera amaitu ondoren faxa jaso du Madrildik. Mezua: «Ratorekin bilera kupoia eztabaidatzeko ostegunean». Igorlea: Jaime Ignacio. Amodio kontutuan bezalaxe, politikan distantzia erabakigarria omen denez, azken hori nahiago du urrun eta lagun, hurbil eta etsai baino.

Ordubata eta oraindik agenda leporaino beteta badu ere Rafael kontent dago. Bapatean, Mazuelas sozioa sartu da bulegoan. DBHrena tira, baina COFESekin egin nahi dutena ezin omen dezakete onartu sozialistek.

Irribarrea piztu zaio gure lagunari: «Aizu Sandokan! kajoi horretan sarturik dauden paperek argia ikustea ez baduzu nahi, hobe duzu ziztu bizian desagertzea».

Tarteka antzeko ezusteko batzuk izaten baditu ere Rafael kontent dago. Diputazioko erlojuan ordubiak dira. Telefonoa berriro ere. Miguel ari zaio

hizketan mugikorretik: «Aizu Rafa! sekulako giroa dago hemen. Hamaiketako ederra pres-tatu digute. Hortik dena ongi ezta?».

Lasai egon daiteke bai, gure gizona egoeraren jabe baita goitik behera eta ezkerretik eskuinera edo eskuin muturrera. Rafael kontent dago. Nola ez da kontent egonen ba? Etxekoak primeran manejatzen ditu eta 17 gudari bakarrik izanik Nafarroako kapitaina da, oposizioko taldeak noraezean dabilzan bitartean.

Azkenean hirurak. Etxerako bidean irratia piztu du kotxean. Etxenike, Principe de Viana sari berria, elkarrizketatzen ari dira. «Nafarroak, urnibertsitateetan duen aurrekontua bikoiztu beharko luke». Rafaelak diala musika klasikoaren bila mugitu du. Semaforoa laranja badago ere, aurrera jarraitzen du. Horrela egin du bere karrera politikoa osoa.



Rafael Gurrea, Nafarroako lehendakariordea.

asteko pertsonaiak



Javier Chourraut
Iruñeko alkatea

■ Javier Chourrautek botako du sanferminen hasiera iragarriko duen txupinazoa, uztailaren 6ko eguerdian, alkateak berak astelehenean esan zuenez. Aurten CDN alderdiari zegokion txupinazoa botatzea, eta zinegotziek Javier Chourraut alkatea aukeratu dute horretarako. Iruñeko alkatea kontent agertu da erabaki horrekin, eta aipatu du uztailaren 6an bertan jakinen duela une hori esaten duten bezain hunkigarria den edo ez. Ez da aurtengoa Javier Chourrautek txupinazoa botatzeko aukera duen lehenengo aldia, Iruñeko alkate eta UPNko kide zenean proposamen bera egin baitzioten, baina bere ordeaz, eta berak hala eskatuta, Javier Gortari alderdikideak bota zuen txupinazoa.



Jose Luis Martin-Nogales
Nafar Ateneoko lehendakaria

■ Jose Luis Martin-Nogales aukeratu zuten asteazkenean Nafar Ateneoko zuzendaritzako lehendakari. Batxilergoko literatura katedratikoa eta UNEDeko irakasle asoziatua da Martin-Nogales. Nafar Ateneora, halaber, orain dela hiru urte ailegatu zen. Orain arte, Literatura eta Hizkuntzalaritza Saileko kide izan da. Bestalde, aurreko zuzendaritzaren lana eskertu eta ekimen berriak abian jarriko dituztela azaldu zuten asteazkenean zuzendaritza berriko kideek. Halaber, Nafar Ateneoak gazte jendea erakarri nahi duela azpimarratu zuen lehendakariak. Gaur egun, 800 bazkidek goiti ditu elkarte horrek.

ahaztu gabe!



La Polla musika taldea.

ROCK JAIALDIA

Tafalla: Nafarroa Oinez 97 dela eta, ekitaldi ugari antolatu ditu Tafallako Garces de los Fayos ikastolak azken hilabeteetan. Bihar hasiko den asteburua ez da salbuespena izanen, eta ikastolaren eskutik rock jaialdia izanen da Tafallan. Bihar izanen da, gaueko 10:30etatik aurrera, herriko zezen plazan. La Polla, Hechos Contra el Decoro eta PiLT taldeek joko dute. Sarrerak, aurretik erosiz gero, 1.200 pezeta balioko du, eta kontzertuaren egun berean, berriz, 1.400. Tafallan, Zubia, Azoka eta Gabaltzeka tabernetan izanen dira sarrerak salgai; Iruñean, berriz, Kilkir diskodendan eta Meson de la Navarria tabernan; Tuteran, herriko tabernan; Lizarran, Kaxetasen; eta Zangozan, azkenik, Leire tabernan.

Lan ta lan auzolan lelopean, urriaren 19an Tafallan ospatuko den Nafarroa Oinez aurretik giroa berotzeko asmoz antolatu ditu Tafallako ikastolak azken hilabeteetan egin ekitaldi guztiak, hala nola kontzertuak, dantzaldiak, jaialdiak, liburu aurkezpenak eta beste, bai eta biharko rock kontzertua ere.

adi!

Euskalerrira Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetallu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrentzako saioa 12.30etan.

Bera

Udalekuak antolatu ditu Kaxernak

'Udabentura' programa antolatu dute gaztetxoentzat aisialdi taldeko kideek


Udako hilabeteak hasi eta ikasturtea amaitu da. Ondorioz, etxean dira ikasle guztiak. Berako Kaxerna Aisialdi Taldeak, uda alternatiboa antolatu du herriko eta inguruko neska-mutil horientzat guztientzat, ahalik eta oporrik onenak igaro ditzaten. Txikienez udalekuak prestatu dituzte Kaxernakoek, eta gaztetxoentzat, berriz, 'Udabentura', aurtengo programa berria.

Jon Abril / Bera

ANTZINA bezala, Kaxerna Aisialdi Taldeak udaleku irekiak antolatu ditu uztaileko. Uztailearen 1etik 31ra bitartean, astelehenean ortziralerara egingo dira udalekuak. Ekintza guztiak goizez izango dira, 10:00etatik 13:00etara. Jokoak, irteerak, eskulanak, tailerrak, kirolak... denetarik izanen dute aukeran eskolaurreko zein Lehen Hezkuntzako lehen eta bosgarren maila bitarteko ikasleek. Neska-mutilak bi taldetan banatuko dituzte antolatzaileek, adin tartearen arabera, hain zuzen ere.

Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoentzat eta DBHko lehen, bigarren eta hirugarren mailako gaztetxoek, halaber, uda berezia pasatzeko aukera izanen dute, haien ekintza berria prestatu baitu Kaxerna Aisialdi Taldeak, Udabentura, alegia.

Aurten lehen aldiz egiten duten programa horren baitan, hain zuzen, rafting-a, eskalada, kobazuloetara txangoak bizikletaz, kanpaldiak mendian eta



Rafting egiteko aukera izanen dute gazteek Kaxerna taldearekin.

ARTXIBOKOA

bertzelako bertze hainbat ekintza egin ahal izanen dute gaztetxoek.

Astean bitan • Udabentura astean bitan egiten da eta Berako neska-mutilak ezezik, Bortzirietako ikastetxe guztietako ikasleek parte hartu ahal izanen dute. Udabentura-ko ekintzak, gainera, ez dira denak leku bakar batean egiten, han-hemenka ibiliko baitira begirale eta gaztetxoak.

Oraindik izena eman ez dutenek gaur egin ahal izanen dute

Berako Gure Txokoa elkartearen egoitzan. Arratsaldeko 19:00etatik 20:00ak bitartean egonen da zabalik elkarteko bulegoa. Udaleku irekietan parte hartu nahi duten neska-mutilak 6.000 pezeta ordaindu beharko dute, eta Udabentura-ko partaideek, berriz, 6.500.

Kaxerna Aisialdi Taldea orain hiru urte sortu zen herriko hainbat gazteren ekimenez. Haur eta gazteen aisialdiko begirale ikastaroa egin zuten lehendabizi, eta, ondoren, herriko haurrekin lanean hasi ziren. Kaxerna taldeko

kideek antolatzen dituzten ekintza guztietan haurrak euskaraz aritzeko gune bat sortzea dute helburu Berako begiraleek, bai eta heziketa osatuago baten alde egitea ere. Halaber, antolatzen dituzten ekintzak Bortzirietako neska-mutil guztientzat eginez, hainbat ikastetxetako ikasleak elkartu nahi dituzte Kaxernako kideek. Eta ez dira gutxi, hain zuzen, orain arte elkartu direnak, aurreko urteetan udaleku irekietan 75 bat gaztetxok parte hartu baitzuen Kaxernaren eskutik. X

Berriozar

Gazte Astea ospatzen ari dira egunotan Udalaren eskutik

■ Asteartean hasi eta igandean bukatuko dira ekitaldiak

Erredakzioa / Iruñea

BERRIOZARKO UDALEKO Gazteria Batzordeak antolatu, Gazte Astea ospatzen ari dira herritarrek egunotan. Ekitaldiak asteartean hasi ziren eta igandean amaituko dira. Gaurko egitarauari dagokionez, arratsaldeko 19:00etan mahai-ingurua egingen dute *Gazteak eta antimilitarismoa* gaiaren inguruan; asteartean langabeziari buruz hitz egin zuten. Antimilitarismoari buruzko eztabaidan KEM, PSOE, CDN, Kalkitza, UPN, IU, Malatxa, EAJ, BIT eta EAKo alderdi eta taldeetako kideek hartuko dute parte, eta bakoitzak duen iritzia plazaratzeko aukera izanen du.

Gaueko 21:00etan, bestalde, Calambur antzerki konpainiak *Picnic* lana taularatu du herriko parrokian, eta gaueko 22:30etatik aurrera, berriz, Eguzki plazan, *Seven* filmea botako dute, beldurrezko zinemari eskaini dioten zikloaren barruan.

Biharko ekitaldiak goizeko 11:30etan hasiko dira, triatloi probarekin. Lantzeluze pilotalekuan elkartuko dira partaide guztiak, eta gero bizikleta gainean ibili eta igeri eta korrika egingo dute. Partaide bakoitzak etxetik ekarri beharko du bizikleta, antolatzaileek iragarri dutenez, eta triatloia amaituta, sariak banatuko dituzte parte hartzaileen artean. Kirolari tarte bat eskaini ondoren, arratsaldeko 14:30ak aldera, kalderete jatea egingen dute herriko Musika Eskolan. Hori bai, herriko talde bakoitzak berea prestatu beharko du gero jan ahal izateko. Udaleko Gazteria Batzordeak ogia, edariak eta egurra jarriko ditu, eta partaideek kalderetea eta umore ona.

Arratsalde partean, 17:00etan, Gaztetxe eta Zulo Alai taldeen arteko futbol partida izanen da, futbol zelaian, eta 19:00etan, herri poteoa herriko kaleetan barrera. Gaueko 23:00etatik aurrera, azkenik, Ktulu taldearekin kontzertua izanen da Eguzki plazan. Aurretik, Kados, Khurare eta Txaiña taldeek joko dute.

Igandekoa izanen da Gazte Asteko azken eguna. Eguerdian, Eguzki plazan, dantza tailerra egingen dute, jota, porrusalda, zazpi jauzi eta beste hainbat dantza ikasteko. Ikastaro horrek emanen dio amaiera aurtengo Gazte Asteari. Aste osoan bezala, halaber, igandean ere ikusgai izanen da Gaztetxean paratu duten pegatina erakusketa. Nahi duten guztientzat zabalik izanen da. X

Otsagabia

'Atharratzeko jauregian' pastoralala eskainiko dute

■ Abuztuaren 14an izanen da emanaldia

Erredakzioa / Iruñea

ATHARRATZEKO (Zuberoa) herriak erromantze zahar batean oinarritutako pastoralala prestatu du eta uztailearen 20an eta abuztuaren 3an Errebote plazan eskainiko du. Zuberoatik kanpo ere aurkeztuko dute, abuztuaren 16an Otsagabian izanen baitira Atharratzeko herritarrek, *Atharratzeko jauregian* izeneko eta Pier Paul Berraitzek prestatutako pastoralala eskaintzeko.

Pastoralak hartutako istorioak bi protagonista ditu: Xarle Lukuzekoa, jauna eta alarguna, eta esposatu nahi duen bere

lagun minaren alaba. Zuberoako pastoralala bada ere, badu Otsagabiarekin harremana, eta horregatik eskainiko dute Nafarroako herri horretan eta horregatik hartzen dute parte Otsagabiako dantzariak. Istoriok kontatzen duenez, hain zuzen, Xarle Lukuzekoak Jean Albretkoarengandik babesteko Otsagabian bilatu zuen babesa, eta han zazpi urte eman zituen.

Otsagabiako abuztuaren 16ko emanaldiaz gain, Atharratzekoek oraindik ez dute erabaki Zuberoatik kanpo beste saiorik egiteko asmorik duten edo ez. X

Tutera

San Pedro jaiak ospatuko dituzte alde zaharrean

■ Gaitariak egoitza berria inauguratuko dute

Erredakzioa / Iruñea

TUTERAKO alde zaharreko San Pedro jaiak gaur eta bihar ospatuko dituzte herritarrek. Magdalena plazan arratsaldeko 7:00etan botako dute txupinazoa, ospakizunei hasiera emateko. Gaur, halaber, Tuterako Gaitarien egoitza berria inauguratuko dute, arratsaldeko 8:00etan. Horretarako, argazki erakusketa antolatu dute. Taldeak bete dituen hamazazpi urteotako ibilbidea agertzen dute bertan. Egoitza berria inauguratu ondoren, Zangozako Rocamador eta Tuterako Anaiak taldeek emanaldia es-

kainiko dute. Ondoren, gaueko 10:00etan, herri afaria egingen dute.

Haurrentzako ekitaldiak prestatu dituzte gaurko, gainera, eta Yehuda Ha Levi plazan rock kontzertua izanen da, Raskatu, Somoskaia eta M-Bit taldeekin.

Bihar goizean, bestalde, pentanka lehiaketa egingen dute, eta Tuterako alde zaharreko agurek omenaldia jasoko dute. Goizaldean, bestetako ekitaldirik bereziak egingen dute, On Cierzoren erretzea alegia. Ondoren, esnea kanelarekin banatuko dute, eta urdaiazpiko bat zozketatuko dute. X

CREINET proiektua
abian Nafarroan

Estuasunez bizi direnentzako lan aukerak

CREINET proiektuaren barruan, enplegu soziala sortzeko hiru ekimen abian dira Nafarroan

Nafarroako Gobernua-
ren eta Europako
Batasunaren CREINET
proiektuaren eskutik, eta
Nafarroako Unibertsitate
Publikoaren (NUP) aholku-
laritzarekin, estuasunez bi-
zi diren pertsonak gizarte-
ratzeko eta lan munduan
sartzeko hiru ekimen abian
dira Nafarroan. Iruñeko
Udalak kudeatzen duen La-
nean eta Gizartean Sartze-
ko Zentro Pilotua da lehe-
nengoa, Errotxapean koka-
tua, Gaztelan eskutik
abian den 'Biciclos' proiektu-
a bigarrena, eta Tuteran
Gizalane martxan jarri
duena hirugarrena.

Edume Elizondo / Iruñea

BEZERO komunak dituzte hiru proiektuak, estuasunez bizi den jendea eta mota askotako arazoak dituzten familietako kideak, alegia. Eta Lan merkatura heltzeko aukerarik ez dutenentzat lanpostuak sortzea dute, halaber, hirurek helburu. Errotxapeko Lanean eta Gizartean Sartzeko Zentro Pilotuari dagokionez, joan den azaroan jarri zen abian 60 lagunekin, Nafarroako Gobernuo Gizarte Ongizate Institutuaren eta Iruñeko Udalaren eskutik, eta abenduaren 31ra bitartean egonen da zabalik.

Nafarroako Administrazioa konturatu da estuasunean bizi den jende guztiarengana —1.700 familia inguru Iruñean— heltzeko ez direla nahikoak izan orain arte erabilitako baliabideak. Ondorioz, beharrezkoa zen ekimen berriak abian jartzea. Horrela sortu dira CREINET izenburupean martxan diren hiru proiektuak. «Gure asmoa, estuasunez bizi direnentzat programak diseinatzea ezezik, programa horietatik abiatuz egun ditugun baliabideak berregituratzea da, eraginkorragoak izan daitezten», azaldu digu Carmen Juanmartiñenak, Lanean eta Gizartean Sartzeko Zentro Pilotuko zuzendariak.

Errotxapeko zentro horretan, zortzi kidek osatu taldea ari da egunotan lanean. Horietako lau gizarte langileak dira, bi hezitzaileak, bat psikologoa eta azkena, Jone Cosin, garapenerako agentea. Zentroan 60 lagunekin egiten du lan talde horrek, eta horietako 40 emakumeak dira, «familiaren ardura guztia haien gain hartu behar izan duten emakumeak, edo ezkontza haustura batetik datozen emakumeak, besteak beste», Jone Cosinek dioenez. Beste hamar kide, oraindik lan munduan sartzerik izan ez duten neska-mutil gaz-



Zentro Pilotuan haurtzaindegia jarri du Udaletxeak, lan egiten duten emakumeentzat.

LUIS AZANZA



Eneko Astigarraga (ezkerrekoa) eta Carmen Juanmartiñena eta Jone Cosin arduradunak.

LUIS AZANZA

teak dira, «eskolan porrot egin dutenak». 45 urtetik goitiko lagunak dira azken hamarrak —gizonezkoak gehienak—, «adina dela-eta lanpostua lortzeko zailtasun handiak dituztenak. Lan munduan porrot egiten dutenez, gainera, eta horren ondorioz, bestelako arazoak dituzte pertsonok».

Jendea aukeratzeko, kontuan hartu ditu Zentro Pilotuak auzotako unitateek egindako proposamenak. Horrela, unitate horietan oinarrituko errenta jasotzen duten edo egoera berean diren pertsonak hartu dituzte, Iruñeko auzo guztietakoak, gainera. «Gehienak Alde Zaharrekoak eta

Errotxapekoak dira, gutxiago Bigarren Zabalgunekoak edo Donibaneakoak».

«Estuasunean bizi den jendea da. Estuasun ekonomikoa dute, eta gainera, laguntza eta harreman estuasuna, egoera latz horretan ez baitute ez familiarik ez adiskiderik ondoan, laguntzeko», azpimarratu du Carmen Juanmartiñenak. Porrot egin dutela uste duten pertsonak direla gaineratu du Jone Cosinek: «Haien zuzen egunerokoa da garrantzitsuena, bizirik irautea».

Laguntza, heziketa eta lana • Zentro Pilotuaren betebeharrak nagusia 60 lagun horiek

lanean eta gizartean sartzeko da. Hori lortzeko, hiru ardatz nagusi ditu proiektuak: laguntza, heziketa eta lanean sartzeko. Laguntzari dagokionez, proiektuan parte hartzen dutenentzat oso garrantzitsua dela nabarmendu du zentroko zuzendariak: «Haien kezka eta zalantza entzun eta laguntzeko prest ia uneoro dagoen jendea dute hemen». Halaber, gehiengoa osatzen duten emakumeentzat zerbitzu berezia jarri dute Zentro Pilotuko egoitzan bertan, haurtzaindegia, alegia. «Emakumeentzat, hain zuzen, seme-alabak zaindu beharra oztupo garrantzitsua da lan egin ahal izateko, gehienek hau-

rrak haurtzaindegira eramateko dirurik ez dutelako, eta aukera hori badute, ordutegia ez delako egokia», gaineratu du Jone Cosinek.

Hezkuntza da proiektuko bigarren ardatza, eta horren baitan, hainbat urrats eman dituzte: autoestimazioa bultzatu, ahozko eta idatzizko komunikazio teknikak landu edo gai monografikoak aztertu —sexualitatea, seme-alabak nola zaindu...—, besteak beste, lehen fasean. Bigarrena hil honetan bertan amaituko da eta gehiago landu dute lan mundua: lan orientabidea, lan bilatze aktiboa, eta abar.

Lan munduan sartzeko da hirugarren ardatza, eta hori lortzeko hainbat pauso eman dituzte proiektuko arduradunak. Alde batetik, lana bilatzen hasi diren pertsonen bilaketa horretan laguntza eta aholkularitza eskaini diete. Bestetik, hainbat enpresarekin harremanetan jarri dira Zentro Pilotuko kideak, eta azkenik, hainbat proiektu zehatz prestatu dute behar diren lanpostuak sortzeko. «Arraindegi, harategi eta hostalaritza lan egiteko proiektuak egin ditugu, adibidez, eta Gaztelanekin, bestalde, lanean eta gizartean sartzeko enpresak bultzatu ditugu», azaldu digu Cosinek.

Txirindulak konpontzen ikasteko proiektua • Gaztelanekin batera, adibidez, *Biciclos* proiektuan parte hartu dute Zentro Pilotuko kideek. Txirindulak konpontzen ikasteko proiektua da *Biciclos*,

CREINET proiektua
abian Nafarroan

12.000 baztertu inguru Nafarroan

eta Eneko Astigarraga eta Samuel Armendarizen eta Gaztelanen eskutik jarri da abian, Nafarroako Gobernuak eta Europako laguntzarekin.

Eneko Astigarragak azaldu digunez, hasieran «proiektu pertsonala» izan zen *Biciclos*, «baina laster ulertu genuen aurrera atera ahal izateko atzean norbait behar genuela, eta Gaztelani aurkeztu genion proiektua». Iazko maiatzean hasi ziren prestatzen eta aurkezpena Sanferminen aurretik egin zuten. Gaztelan taldeko kideei asko gustatu zitzaizkien, eta lanean hasi ziren.

Bost hilabetez hamasei bat mutilekin egin dute lan, hain zuzen ere, Salestarren egoitzan. Partehartzaileak, alde batetik, Salestarrek aukeratutakoak izan dira —eskolan porrot egin dutenak—, eta bestetik, proiektuko arduradunek hautatutakoak. Azken horiei dagokienez, lehen-dabizi auzoetako unitateekin harremanetan jarri ziren Gaztelanekoak oinarritzko errenta jasotzen duten familien zerrenda lortzeko. Eta bestetik, Errotxapeako Zentro Pilotuko kideek bidalitako lau lagun hartu dituzte *Biciclos* proiektuan parte hartzeko.

Bost hilabetetan, hutsetik hasita bizikletak konpontzen ikasteko oinarritzko heziketa jaso dute proiektuan parte hartu duten mutilek. «Ikastaro praktikoa izan da, eta gure tailerrean ezezik, beste zenbait lekutan praktikak egiteko aukera izan dute gazteek». *Biciclos* proiektuaren helburu nagusia, dena den, ez da hezkuntza, lanean eta gizartearen sartzeko enpresa sortzea baizik. «Ikastaroa egin duten hainbat kideri lana eskaini ahal izateko enpresa egin nahi dugu», azaldu digu Eneko Astigarragak.

Lehen asmoa enpresa hori udan abian jartzea zen baina ezinezkoa izan da, eta uda ondotik zabalduko dute, zuzenik. «Une honetan, San Anton kaleko 49. zenbakian lokala moldatzen ari gara, han bizikletak gordetzeko garaje bat jarri ahal izateko». Garajea ezezik, bizikleten mantenimendurako tailer txikia jarriko dute, bai eta txirridula zaharrak konpondu eta kanpora bidaltzeko tailerra ere.

Carmen Juanmartiñena: «Estuasunez bizi direnentzat programak egin ezezik, egungo baldintzak eraginkorrago bilakatzea da gure asmoa»

Jone Cosin: «Emakumeentzat, seme-alabak zaindu beharra oztopo garrantzitsua da lan egin ahal izateko»

Mario Gabiria: «Izardiak botata irabazitako soldata sozialaren aldekoak gara gu»

CREINET proiektuaren barruan abian diren ekimenek Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Lan Departamentuko laguntza eta aholkularitza jaso dute. Horretaz gain, halaber, Nafarroako bazterte sozialari buruzko ikerketa egiten ari da departamentu hori. Mario Gabiria, Miguel Laparra, Manuel Aguilar eta Conchi Corera ari dira ikerketa horretan lanean, 30 bat kidek osatutako lantaldearekin batera.

Ikerketa iazko martxoan hasi zen eta abendurako amaitzea espero dute proiektuko arduradunek. Ikerketaren emaitzak ordura arte ezagutuko ez badira ere, Mario Gabiriak aurreratu daitkeen zenbait daturen

berri eman digu. Soziologoak azpimarratu du, adibidez, Nafarroa dela, Europa osoan, bazterte sozial gutxien duten eskualdetako bat, eta beraz, estuasunez bizi diren pertsonen kopurua murrizta dela.

Nafarroako populazioaren % 85, gutxi gora-behera, erabat integratuta bizi dira; % 12-13, berriz, integratuta daude baina batez besteko errentaren % 50etik beheitiko soldata jasotzen dute. Eta populazioaren % 2-3, azkenik, erabateko pobrezian bizi da, estuasunez, eta batez besteko errentaren % 25etik beheiti kobratzen dute. «Erabateko pobrezian bizi diren barruan, etxerik ez dutenak, drogazaleak eta beste daude», gaine-

ratu du Gabiriak.

Nafarroan, beraz, populazioaren % 2 inguruk pairatzen dute bazterte soziala, hamar edo hamabi mila lagunek gutxi gora-behera. Denetara, hain zuzen, azken hamabost urteetan Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso duten 4.500 familia daude. Mario Gabiriak kopuru txikia dela nabarmendu du, eta horregatik, Nafarroako Pobreziaren eta Bazterte Sozialaren Aurkako Sarearen edo NUPeko Gizarte Lan Departamentuaren zeregina kopurua oraindik gehiago murrizteko bultzada ematea da soziologoaren ustez, «bazterte soziala pairatzen duten 12.000 pertsona horiek 4.000 besterik izan ez daitezten».

Hori lortzeko, etxebizitzaren gaia da landu beharreko bat Gabiriaren ustez, «nahiz eta Nafarroan egoera oso larria ez izan. Uste dugu 800 eta 1.400 familia bitarte dagoela oso egoera txarrean, eta horregatik uste dugu Gobernuaren Etxebizitza Planak zerbait egin behar duela hori konpontzeko, lotsagarria baita oraindik ehun familiarik gora kobazuloetan bizitzea, edo ijitoen 400 familia egotea oraindik etxe egokirik gabe, edo Zangozan txaboletan hamalau familia bizitzea».

Gabiriak azpimarratu duenez, hain zuzen, baztertua bizi diren % 25 ijitoak dira. «Gizarte integratu bat lortu nahi badugu, ijitoekin egin behar dugu lan, beraz», aipatu

du. Lan hori, hala ere, ez da batere erraza, nabarmendu duenez. Gabiriari esperientzia ez zaio falta, hamar urte baitarama ijitoekin lanean. «Ekonomikoki egoera hobea bizi dute, baina sozialki ez da gauza bera gertatu», azpimarratu du. Ijitoen kasta-gizarteak du horren errua, Gabiriaren ustez, «beren burua isolatzen baitute horren ondorioz». «Gaur egun —gaineratu du—, lanbiderik ere ez dute ijito gehienek. Mutlak hamahiru edo hamalau urterekin ateratzen dituzte eskolatik, eta neskek lehenago oraindik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza dela eta, gainera, okerrera egin du egoerak, hamabi urterekin uzten baitute denek ikastetxea».



Biciclos proiektuko gazteek txirridulak konpontzen ikasi dute.



Altzariak berritzeko tailerrak

Tuteran • Tuterako proiektuan parte hartzen dutenek, besteak beste, altzariak berritzen ikasten dute Gizalanean eskutik. Baina ez hori bakarrik, beste hainbat ekimen jarri baitute abian Erriberako hiribuan, nahiz eta denek arrakasta bera ez izan. CREINET proiektuko beste ekimenak bezala, Tuterakoak ere Nafarroako Gobernuaren eta Europako Batasunaren laguntza jaso du —er-

dibana finantzatzen dute 50 milioiko aurrekontua—. Urtebete darama martxan eta abenduaren 31n amaituko da. Ondoren, Zangozan jarriko dute abian antzeko ekimen bat.

Mario Gabiria soziologoa da Tuterako proiektuko arduradunetako bat. Han dago, hain zuzen, egunotan, eta handik eman digu egiten ari diren lanaren berri. Esan digunez 26 lagun daude proiektuan, haietako 20 ijitoak: lau tuterar gazteak, aljeriar bat eta marokoar bat. «Proiektuaren helburua partaideei lanbide bat irakastea da, lan egin eta aurrera ateratzeko gai izan daitezen», azpimarratu du soziologoak.

Horretarako, altzariak berritzen ikasi dute proiektuko partaide gehienek. Abenduan amaitzen denean, hain zuzen, altzariak berritzeko bost tailer zabalik geldituko dira Tuteran. Mario Gabiria pozik da ekimen horrek izan duen arrakastarekin, eta azpimarratu duenez, bi milioi pezetako balioa duten altzari-

multzoa berritu dute jada. Arzoa, orain, horiek guztiak saltzea da: «Antzinasuna ziurtatuta dago eta oso prezio onean eros daitezke, Europako Fondo Sozialaren laguntza jaso dugulako». Tuterako plaza Zaharrean den Gizalanean egoitzara jo behar du altzariak erosi nahi dituenak, edo 41 03 32 telefonora deitu.

Altzariena, dena den, ez da landu duten arlo bakarra. Proiektuko hainbat kidek, adibidez, Sabcas peña flamenkoa zabaldu dute. Horretarako XVI. mendeko etxe bat berritu dute: «Maiatzaren 18an zabaldu genuen, eta arrakasta handia lortu zuen». Gitarra jole edo zerbitzari lana egiten dute peña horretan ijitoek.

Izan dira, bestalde, martxan jarri eta bertan behera utzi behar izan dituzten proiektuak, funtzionatu ez dutelako: bi denda eta ostatu bat, hain zuzen ere. Gizalanean kideek, dena den, ez dute etsi, eta abuztuarekin batera, adibidez, Zangozan jarriko

dute praktikan Tuteran ikasitako guztia, proiektu berria hasiko baitute han. Gizalanean kideekin batera, NUPeko Gizarte Laneko hamar boluntario ariko dira lanean Zangozan.

Hamalau ijitok osatuko dute Zangozako taldea, eta altzariak berritzen eta mahasiak kimatzen ikasiko dute. Badute Gizalanean beste proiekturik, dena den. «Etxe zaharrak erosi eta berritu nahi ditugu, txaboletan bizi diren hamalau ijito familia baitaude Zangozan».

Mario Gabiriaren ustez, estuasunez bizi direnei lanbide bat irakastea funtsezkoa da. «Izardia botata irabazitako soldata sozialaren aldekoak gara gu: jaso dezatela soldata baina egin dezatela lan ere». Ildo berean, egungo prestazio sistema hobetu behar dela uste du soziologoak, «oro har, dirulaguntzetan oinarrituta baitago. Kasu askotan laguntza hori beharrezkoa da, baina lan egin dezaketentzat enpresak sortu behar ditugu». X

Xanti Begiristain

Miguel Sanz,
jalgi hadi kanpora

■ Miguel Sanz lehendakari txit argiak hamal-ka aldiz erakutsi du dagoeneko bere trebetasuna euskararen alorrean. Berdin defenditzen da euskaraz hitz egiten paperik gabe, lehengo Pamplona Television-en behin demonstratu zuen bezala, nola paperetik testuak irakurtzen (beti beste norbaitek euskaratuz gero) NUPen eta Madrilén harrosko agertu zenean bezala, eta jada, azken bolada honetan ausartu da baita erreztatzeraz ere; gogora ezazue zer ausardiaz irakurri zigun orain dela gutxi Beñat Etxepareren kontrapas ezaguna, hau da, *Euskara, euskara, jalgi hadi plazara...* Abestea baino ez zuen falta izan, baina ez gehiegi fidatu el, zeren eta konbentziturata bainago, *gidoiak* horrela eskatzen badio, kantatu ere kantatuko duela. Bai, orain arte behintzat, Corellako *txikitoak* sobera ongi demonstratu du antzezle ona dela, badakiela une bakoitzean jotzen dioten

suan bai, argi dago zein den bakoitzaren aho-tsa, izan ere, azken bolada honetan nork bere tesituran gogotik desafinatu baitu, baina lasai el, nonbait belarri-zuloak itxi samarrak izanen dituzte eta ez dituzte inondik inora ere erreparatzen beren diskordantziak. Hala eta guztiz ere, jarraitzen baldin badute *Sanzvinski* maisuaren batutaren zuzendaritzaren pean, agian, egunen batean iritsiko dira osatzeraz goren mailako orfeoi ospetsuren bat, eta nork daki? auskalo! denboraren poderioz apika, noizbait ordezkaturako dute Iruñeko oraingo orfeoi eskarmentuduna.

Dena den, gogoan hartu kantu ikasle trebe hauek dagoeneko eginak dituztela beren lehendabiziko kontzertuak eta emanaldiak, eta inolaz ere ezin da esan arrakastatsuak ez direla izan; konparaziora, hor ditugu Donapea institutuko areto nagusian emandakoa, IKA eta



Miguel Sanz Nafarroako lehendakaria.

OSKAR MONTERO

erritmoaren arabera dantzatzen alegia. Oraindik ez dakigu zer ahots mota daukan, hots, tenore, baxu, baritono, kontratenore edota sopranoarena. Auskalo! Baina badaezpada ere ez ezazue ahaz behin batean adierazi omen zuela oso sutuki, bera arront nafar jatorra dela eta hala sentitzen dela, horregatik berdin zaiola jota bat kantatzea edota *txotxiko* bat abestea. Izan ere, Erriberako gure antezlari ospetsu horrek, bere agerraldi horietan guztietan gainera, barra-barra erakusten ditu bere laiotasun apartak ahoskatzerakoan, doinua ematerakoan, eta zer esanik ez, azentuak egiterakoan.

Bestalde, ez genuke ahaztu behar nafar guztion lehendakari txit argiak bere *musika eskolan* afiliatu-aliatu fidel asko dituela, esate baterako, Zalba baritonoa, Markotegi tenorea eta Aurelio Arteta kontratenorea. Horien ka-

AEK-ko ikasgeletan eginikoak, Interneteko sareetan gauzatutakoa eta beste mila, baina hitz gutxitan azaltzeko nik esanen nuke, Nafarroako hamahiru ikastolatak jostaleketan lortu dituztela benetan notarik ozenen eta distiratsuenak. Hala ere, Barañaingo zenbait lanpostutan eta Zaraitzuko hainbat etxetako ETBn eskuratutako entzutea ere ez da makala izan. Egia esan, Sanzkume horiei, beren nagusiari bezalaxe, ikusten zaie inolako zalan-tzarik gabe egundoko etorkizuna.

Hori dela eta, nik dagoeneko prestatu diet hurrengo kontzerturako olerkia, beraiek kanta dezaten beren piper eta gatz apartaz, hau da: *Miguel Sanz, Miguel Sanz, ez gelditu Corellan, Miguel Sanz, Miguel Sanz, ez gelditu Nafarroan, Miguel Sanz, mesedez, joan Euskal Herritikan, Miguel Sanz, faborez, ez itzuli sekulan!* ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Frai Franzisko
Palacios oñatiarra

■ Aspaldian jagoitk Palacios aitaren aipamena ekarri genuen dantzaren gaineko segida batean. Ez gara honakoan beraz ber galan pausatuko, baina zeharo ezezaguna den Palacios misiolariari buruzko berri zenbait ekartzei arras interesgarri deritzogu. Franzisko Antonio Palacios Lezeta 1727.eko urriaren lauan sortu zen Oñatin, eta sorterrian lehendabiziko urteak eman ostean, Madrilén zituen amaren aldetiko askazi eli batengana abian jarri zen, non bi urte eskas ikasle ariturik, Aloña mendiak eskaintzen zion babesera bildu zen harzara, berehalaxe Arantzazura jotzeko frantxikotarra izateko asmoz. Teologiazko ikasketak 1758.ean ahiturik, Tolosan eta Arantzazun bertan ezarri zuten irakasle, baina misioingizaren zirrara nonbait biziki barneraturik, Aizkorrieko santutegian lau urtetako egonaldia baten ondoren Zarautzera joan zen betiko. Palacios aitaren lanak predikazioa eta aitoprenaren artean banaturik zeuden, eta idazketa kontuak izan ezlik, ia beste ezerk ez zuen kezkatzen. Halaz guztiz ordenean ere artarik izan zuen, bada 1779.ean Zarauzko nagusia izan genuen eta 1782.ean probintziako kustosioa izan zen, alabaina probintziako burutza eskeini ziotenean zapuzt egin zion. Zarautzen bertan hil zen 1804.eko urriaren 14an santurrina zeriola.

Hiru izan ziren izkiriatu zituen abondoan artean argira atera zirenak. *Ramillete espiritual*, Gasteizko Thomas Roblesen etxean inprimatu zena, Arabako hiriburuan Haza aitaren laguntzaz 1765.ean eginiko misio batzuen epilogoat har liteke. *Propósitos* bere bigarren lana dugu, Iruñean 1783.ean agertu zen, eta Arrasate zein Oñatin jende goren emandako misioen emaitza dukegu. Alabaina bigarren honen alerik ez omen da egundaino gorde, eta bere aitorea zen Añibarro bizkaia idazle sonatuak, liburu bakar batean urtu eta euskarara egin zuen itzulketara dugu lekuko bakarra: *Lora sorta espiritual eta propositu santuac vicitza barri eguitico*, Tolosan 1803.ean. Palacios aitek inprimarazi zuen hirugarren lana guretzat ezagunena liteke. *Respuesta satisfactoria del colegio de misioneros de N.P. San Francisco de la N.V. de Zarauz a la consulta y dictámenes impresos por la N.Villa de Balmaseda con ocasión de una proposición sobre balles*, Iruñeko Josef Longasen etxean karrikataturik 1791.ean. Idazki hau hiru urte lehentxeago etxe bereko beste bi misiolariak, Gereñuko Felipe Landak eta Gatikako Antonio Artetak alegia, enkarterri hartan egin zituzten misioetan sortu zen eztabaidari erantzutera zetokeen.

Misiolari gisa arrakasta itzela uzta zuen 42 urtetako bitarte luze batean. Bere predikatu luzeak ahal guztietan jasotzen zituen idatziz, eta horren kariaz argitaratzeko lain zeuden bi liburuki larga zituen Jose Ignazio Telletxea Idigorasek enkante batean behiala erdietsi zituenak. Bestalde Zarauzko etxean bere sermoiak jasotzen zituen 15 liburuki utzi zituen, haletariko bi egun galduta badira ere. 13 sermoitegi haue-tan bakarra dugu euskaraz, eta baliteke galdutako bi aleak euskaraz ere idatzirik egotea, kontutan harturik misio aunitz egin zituela euskal herrietan eta euskaraz. Eskuizkribu hauek abantzu irakurtezinak dira, eta behar beharrezkoa litzateke, guztiena ezpada, lan aliferra bailitzateke, bai euskarazko alekiaren transkripzioa burutzea, ahalaz gutxi gal dadin. Aipagarria da Palaciosen jatorrizko euskara bizkaieraduna bazen ere, bere euskal lanak gipuzkeraz tajutu zituela. Hona hemen lagin adierazgarri bat. Zegama Zerain eta Mutiloan predikatutako limosnaren sermo batena: *Acabatu nai zuen Jaungoicoac eta guztiz abrasatu azufrez eta icaragarrizco su andi batequin ciudade desdichatu Sodomaco ta Gomorraco. O cer ocasio nere jente ona, seigarren mandamentu santubaren dan becatu ichuslaren onrra esateco. Entregatu zan jente gaiztoa bicio torpe onetara. Ez zuten Jaungoicoaren bildurric eta ezta eren gusto torpea baño beste jaungoicoric. ta orregati destruitu zuen chiquit ta andi, eche ta actenda, abere ta arbolarañako gucia. Etzuten obec becaturic egin, baño anbat Jaungoicoa aserritzen da bekatu ichusi onequin, ce etzion bateri ere baratu, guzia acabatu zuen. O nola bildur naicen eguin ez dezan aibeste beste erri ascorequin! Cristauac cristauac, begira, beguira nola bici zeraten, orain da dempora, orain jaungoicoac aguintzen dzu igues eguita ocasio orretati, ez ezazu bada, ez nere cristaua, icheden gerora, orain delitzen dzu, orain Jaungoicoac emaiten dzu lekuba. O zenbaitek negar egingo zuten Sodomaco ta Gomorraco ciudadeetan, baño cer aprobechatu zuen, cer logratu zuten, ecer ere ez, erre ciran, abrasatu ciran, condenatu ciran. Contu becataria, erre, abrasatu ta condenatu seculaco ez zaitezcan.*

Palaciosen ospea zabala zen guztiz Juan Antonio Mogelek berak ere jaso zuen gisan bere 1803.eko Confesino ona liburuan: *«Euscaldun guzti guztic, zar gazte, agure ta umiac, dauquee Alta Palaciosen enzulia. Gure zori chaarez, zaartu da gaissua, jausti jacoz gorputzezo indarrac, ta bacarric dauca zoli zollja. Jaungoicoac emon eutsan min garbi ta berba eder asco atera dituzana»*. Nolanahi ere zen, Palacios aita ez zen ospe bereganatzen zuen bakarra, eta Zarauzko etxeak berak halako izen handia erdietsi zuen Euskal Herri osoan, hortaz ezaguna da Larramendiren lekukotasuna bere Gipuzkoako Korografian. Zarauzko lekaidetxea 1610. urtean ireki zen Flandes aldean zegoen Juan Manzisidor herriko aitonen semearen eskariz. Honek 500 dukateko urteoroko errenta bat ezarri zuen konbentuan 12 fraide bizi zitezen. Garai horretan 1617.ean prezeski, badakigu Herbehereetik 196 errelikia eraman zituztela Zarautzera, besteak beste, Santa Justinaren burua, Melxor erregearen hortz bat, Noeren itsasontziaren egur puska, Gabirel aingeruak zapalduetako lurra, San Paulo eta Santa Barbararen hezur batzuk, Jesu Kristoren ohiaren zati bat, etabar luzea. Guztia-ekin ere hau ez zen nahikoa izan etxearen egoera hobetzeko, eta nahiko une larriak bizi izan ziren, Kantabriako Probintziak 1746.ean Zarauzkoa misiolarien egoitzarako hautatu zuen arte behintzat. Misiolari apostolikoen apezgaitegi eskolak apezpikuek xedatu bula berezian menpean eratzen ziren, estatuto bereziak bazituzten, eta zuten zeregin garrantzitsuena eta ia bakarra predikazioa zen. Hortarako, etxe hauetan zeudenak beste komentuetan baino bizitza latzago eta gogorragoa eramaten zuten, ixiltasunean, penitentzian, eta mundutik at. Zarauzko etxeke estatutuetan herri euskaldunetan predikatzeke lehentasuna jasotzen zen, beraz anai euskaldunak ziren gehien batez bertaratzten zirenak. ■

Putreen ustezko erasoak eztabaidagai

«Ohiko samarra den gertakaria» desitxuratu dela salatu dute adituek Ugatzak egin mahai-inguruan

Ugatzak antolatuta, Nafarroako Putreei Buruzko Lehen Jardunaldia egin zuten joan den ostiralean Iruñean, Larraona ikastetxean, azken hilabeteetan Nafarroako putreek ardi biziei ustez egin dizkieten erasoak eztabaidatu eta gertatzen ari dena argitzeko asmoz. Entzule askoren aurrean, gonbidatuek euren iritzia plazaratu zuten.

Eduarne Elizondo / Iruñea

MAHAIAREN atzealdean, Carmelo Fernandez biologoa, Juan Pablo Gil Nafarroako Gobernuako Ingurugiro Saileko ordezkarria, Alberto Bergerandi Ugatzako biologoa, Fernando Hiraldo Doñanako biologoa eta Dominique Ardoin eseri ziren, arratsaldeko L'Office National de Chasse erakundeko biologoa eseri ziren arratsaldeko 20:30ak pasata, gaiari heltzeko asmoz. Aurretik, arratsaldeko 19:30etatik aurrera, hitzaldi bana eskaini zuten Jose Antonio Donazar Espainiako Zientzia-Ikerketa Zentro Gorenko kideak eta Carmelo Fernandez biologoa. Lehenengoa Iberiar penintsulako putreen biologia eta iraunbiziaren mintzatu zen, eta bigarrena, berriz, Nafarroako putreen populazioaren garapena eta janaria lortzeko duten aukeraz.

Fernandezek esan zuenez, gaur egun Nafarroan 1.800 bikote ugaltzaile inguru dago, nahiz eta azken errolda 1994. urtekoa izan. Orduan, 1.520 bikote ugaltzaile zegoen Nafarroan. Putreen kopuruak gora egin badu ere, populazioaren batez-besteko hazkundeak behera egin du. 1994. urtean % 8,3koa zen, eta gaur egun % 6 ingurukoa. Nafarroako putre bikote ugaltzaileak non dauden ere azaldu zuten Fernandezek: gehiago Pirinioetan eta erdialde-ekialdean, eta gutxiago erdialde-mendebaldean eta hegoaldean. Putreen behar trofikoak asetzeko adina sarraski dagoela Nafarroan gaineratu zuten, «bai eta gehiago ere».

70 salaketa gaur arte • Donazar eta Fernandezek hitzaldiak amaituta, putreen ustezko erasoak mahai-ingurua hasi zen, Miguel Bidegain kazetariak moderatuta. Nafarroako Gobernuako Ingurugiro Saileko ordezkarriak hartu zuten lehendabizi hitza. Ugatzak, Ingurugiro kontseilari Yolanda Barcina gonbidatu zuten, baina haren ordez, Juan Pablo Gil egon zen jardunaldian. Jakinarazi zuenez, maiatzaren erdialderako putreek ardi biziei egindako ustezko 42 eraso salatu zituzten, eta horietako 27 ontzat eman zituen Administrazioak.

Gaur egun, 70 salaketa daude guztira. Salaketa horiek eta Nafarroako putreekin gertatzen ari dena argitzeko, Nafarroako Unibertsitateko Zoologia eta Ekologia Departamentuko kideei ikerketa egiteko eskatu die Nafarroako Gobernuak, Gilek jakinarazi zuenez. Mahai-inguruko lehenengo bost minutuak hartu zituen Gobernuako ordezkarriak hori guztia esateko. Gainera, bertan —nahiz eta gonbidatu batek

baino gehiagok Administrazioak auzi horretan izan duen jarrera salatu — isilik egon zen.

Dominique Ardoin Iparraldeko biologoa hartu zuen ondotik hitza, eta Nafarroan gertatzen ari denak erabat harritu duela aipatu zuen, esan zuenez ez baitzuen uste gai horren inguruan halako polemika piztu zitekeenik. Ardoinek azpimarratu zuen Iparraldean ez dutela inolako arazorik izan. «Eraso baten berri izan genuen —aipatu zuen— baina ikertu ondoren ezin izan genuen ontzat eman. Hogei urtetik gora daramat putreekin lanean eta ez dut inoiz inolako erasorik ikusi».

Fernando Hiraldo biologoa urte mordo darama putreak eta beste hegazti sarraskijaleak aztertzen, 30 inguru, eta horietan guztietan, hamar aldiz baino ez du halako eraso bat ikusi animalia bizirik edo hilik zegoen esateko behar adina distantziatik. Ildo horretatik abiatuta, «ohiko samarra den gertakaria erabat desitxuratu» dela salatu zuen Hiraldo. Eta horren erantzulez Administrazioa eta kazetariak jo zituen, azken horiek batez ere. «Bolbora deskubritu nahi izan dute —esan zuen kazetariak buruz—, putreak erotu direla esan dute, harrapari bilakatu direla, eta hori ezinezkoa da. Baina bada gauza ziur bat, hau da, putre batek ahul, gaixo edo mugitu ezinik dagoen animalia jan dezakeela». Horrelakorik gertatzea ohiko samarra dela esan bazuen ere, ohikoa ez dena maiztasuna dela gaineratu zuen.

Ikerketa aipatzean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Unibertsitateari eskatu izana salatu zuen Hiraldo, eta Juan Pablo Gili horrek erantzun nahi izan ez zuen galdera zuzena egin zion: «Nafarroan sarraskijaleei buruzko munduko aditurik onenak badaude, zergatik eskatu zaie ikerketa hori egitea putreei buruz nazioarteko aldizkarietan artikulatu bakarra idatzi ez duten pertsonen?».

Erasoen argazkiak • *La Vanguardia* egunkariak ateratako putreen erasoen argazkien egilea Iruñean izan zen ostiralean, Andoni Canela, alegia. Esan zuenez, egunkari horren lehen asmoa joan den azaroan Nafarroako putreei buruzko erreportaia egitea zen. Oraindik argitaratu gabe

Fernando Hiraldo: «Bolbora deskubritu nahi izan dute kazetariak, putreak erotu direla esan dute, eta hori, ezinezkoa da. Baina bada gauza ziur bat, hau da, putre batek ahul, gaixo edo mugitu ezinik dagoen animalia jan dezakeela»



Azken hilabeteetan Nafarroan putreek ardi biziei ustez egindako erasoak eztabaidatu zituzten mahai-inguruan.



Ekzerretetik hasita, Fernandez, Gil, Canela, Bidegain, Bergerandi, Hiraldo eta Ardoin.

JOXE LACALLE

zegoenean, ordea, Nafarroako Gobernuak Iluberrin egindako frogen berri izan zuen —ardi bi-ziak lotu zituzten baina putreek ez zieten eraso egin— eta antzeko zerbait egiteko baimena eskatu zuten.

«Lehendabizi herren zegoen ardi bat hartu genuen. Goizez lotuta egoten zen eta arratsaldean aske uzten genuen artaldeekin. Ardi hura putreek hil zuten, ezin zelako mugitu. Ondoren beste ardi bat lotu genuen baina soka luzeago batekin. Putreak harengana hurbildu ziren baina ardiak aldendu zituen. Hori izan zen dena».

Ugatzako kideek antzeko frogak egin zuten orain hilabete batzuk,

baina ez zen deus gertatu. «Hirurogei putre hurbildu ziren baina ardiari ez zioten deus egin», aipatu zuen Alberto Bergerandi biologoa. Bergerandik putreen auzi horretan Administrazioak izan duen jarrera salatu zuen, eta, esan zuenez, «behin baino gehiagotan eskatu ditugun ustezko erasoak buruzko txostenak ez dizkigute erakutsi oraindik».

Carmelo Fernandez biologoa ere ez zen batere kontent Ingurugiro Saillarekin eta, batez ere, Yolanda Barcina kontseilariaren jarrera salatu zuen: «Iazko azaroan, presaka, erasoak benetazkoak zirela esan zuen publikoki, orduko departamentuko zuzendari nagusiaren (Javier Eneriz) eta zerbizuko buruaren (Felix Armendariz) iritzia. Hainbat kazetarik erabilitako sentsazionalismoa Barcinak berak bultzatu zuen». Horrek guztiak sikosia sortarazi zuen herri-tarren artean Fernandezek azpimarratu legez.

Santamaria: «Mugitzerik ez duten ardiei egiten diete eraso putreek»

PUTREEK ardi biziei egin omen dieten erasoek polemika bizia piztu dute Nafarroan, eta oraindik ez da amaitu. Nafarroako Gobernuak eskatu ikerketa aurrera doan bitartean, hilabeteetan mahai gainean jarritako iritzi kontrajarriak hurbiltzen saiatu ziren adituek, Ugatzak antolatuta eztabaidan. Mahaiaren eserita egon ez baziren ere, ardiekin lan egiten dutenen iritzia ere entzun ahal izan zen ostiralean Larraonan.

Han izan zen, adibidez, Carlos Santamaria albaitaria. Hamaika urte darama ardiekin lanean, eta joan den maiatzaren 15ean, putreek ardi bati egindako erasoak ikusi zuten. «Erremendiako gainera igo nintzen, artzainek umea egiteko zegoen ardi bat utzi baitzuten han. Bordan nengo eta atera nintzenean putreak ikusi nituen ardia zegoen lekuan. Lau metrora nengo, eta putreek alde egin zutenean ardiak burua altxatu, eta hil egin zen». Haren ustez, horrek argi azaltzen du mugitu ezinik dagoen ardi hiltzeko gai dela putrea.

Ardiak zaintzeko moduak erasoekin zerikusi handia duela gaineratu zuen Santamariak: «Iluberrin ez da erasorik gertatu artzainak zaintzen dituelako ardiak. Mendialdean, ordea, artzainaren ordez hesiak jarri dituztenez, bakarrik egoten da artaldea, eta, askotan, hesietan harri-patuta gelditzen dira ardiak. Egoera horretan erasoak gertatzea errazago da.»

◆ Patxi Laborda ◆ Dantzaria

«Jaialdiak kultur trukea du helburu»

Iruñeko Duguna Folklore Elkarteak Nazioarteko Folklore Jaialdia antolatu du ekainaren 30etik uztailaren 4ra arte. Patxi Laborda elkartearen partaidearen irudikoz, jaialdiak kultur trukaketa izan nahi du eta aproposa izanen da beste herrialdeetako folklorea eta dantzak ezagutzeko.

Irene Arrizurieta / Iruñea


JAIALDIAN Galiziako, Errumaniako, Sri Lankako, Bulgariako, Greziako, Australiako, Boli Kostako eta Siziliako taldeek eta Duguna dantza taldeak hartuko dute parte, eta dantza emanaldiez gain ikastaroak ere antolatu dira.

■ Zertan datza jaialdia?

Duela zenbait urte, 1950 inguruan horrelako zerbait egiten zen Iruñean Sanferminetan. Munduko Herri Dantza Jaialdia izaten zen. Guk ohitura hura berreskuratu nahi dugu eta jarraipena eman. Geroztik zenbait gauza egin dira baina ez dute jarraipenik izan. Garai hau —Sanferminen aurreko astea— oso aproposa iruditzen zaigu. Gainera, ez dugu bakarrik herri dantzen jaialdi bat egin nahi, baizik eta kultur trukea ere bai. Iruñean folklore hutsune handia dagoela uste dugu, batez ere nazioarteko folklorea. Horregatik, Duguna Folklore Elkarteak herri dantza jaialdiarekin batera zenbait ikastaro, erakusketa eta musika emanaldi antolatu ditu.

■ Zer ekar diezaioke jaialdiak euskal folklorea?

Edozein folklorentzat oso ona da bestek egiten dutena ezagutzeta. Batzuek arrautza batean bizi garela uste dute, eta gurea hoberena eta bakarra dela. Gure folkloreak lotura oso sakona du beste batzuekin. Besteak ezagutzuz, neurri handi batean lotura hori ikusi eta ezagutu daiteke. Horrela jakin dezakegu zergatik maitatzen dugun hainbeste gure folklorea. Guk zenbait kolore eta erritmo ezberdin ditugu, baina



Patxi Labordak urte asko daramatza euskal dantzak eta folklorea aztertzen.

LUIS AZANZA

horrek ez du esan nahi gainerakoek ez dituztenik. Horregatik polita da besteek zer egiten duten baloratzea. Euskal folklorea leioak zabaltzen ditugu eta beste herrien arnasa sartzen da. Kultur truke polita egin daiteke horrela. Folklorea eta dantzei ikuspegi sentikorretik begiratzen diegu. Dantzak benetan ikusgarriak diren arren, ez ditugu ikuskizun moduan hartzen. Hori dela eta, interesgarria da duen ikusgarritasunaz ohartaraztea.

■ Beraz, folklorea beste begi batzuekin begiratu behar zaiola uste duzu?

Bai, folklorea begi askorekin begira dakioko. Gurea delako sentimenduekin jokatzeko ongi

dago, baina herri dantza ikuskizuna da. Alde horretatik baloratu behar da eta ez da egiten. Herri dantza zerbait ikusgarria da, eskuartean oso emankorra den ikuskizuna daukagu eta daukana atera behar diogu. Nazioarteko jaialdiak balioko du horretarako.

■ Jaialdiaz gain, parte hartuko duten herrialdeetako dantzen inguruan ikastaroak eta erakusketak antolatu dituzue.

Gure helburua kultur trukea denez, etortzen diren beste taldeen esperientziak ezagutzera eman nahi ditugu. Ez bakarrik zer motatako dantzak egiten dituzten, baizik eta nola sentitzen dituzten dantzak, zergatik ikasten dituzten. Eta ikastaro horiek horretarako aukera emanen digute. Partaide guztiek ikastaro bat emanen dute euren folklorea zabaltzeko, dantzen, koloreen eta erritmoen esanahiak azaltzeko.

■ Zuk diozunagatik, herri dantzak behar adina aintzat har-

tzen ez den kulturaren zatia direla esan daiteke?

Baietz uste dut. Folklorea garai batean oso politizatua zegoen eta oraindik ere zor horiek ordaintzen ari gara. Zenbait lekutan gaur egun ere euskal dantzak dantza-tzea, Erriberan adibidez, ez dago ongi ikusia. Era berean, beste zenbait lekutan jendeak nahiago ditu gureak ez diren dantzak. Hori zor horien ondorio dela uste dut. Gure dantzen bidez, gure aber- tzaletasuna erakutsi nahi izan dugu. Egun, berriz, abertzale ez izanda ere, dantzari izatea posible dela ohartarazi behar dugu.

■ Euskal folklorea nazioartean oso ongi ikusia dagoela esan duzu. Horrek esan nahi du sasoi onean dagoela?

Bai. Zorte handia izan dugu. Guk oso ongi gorde dugu beste leku askotan galdu dena. Erritual dantzak Europako beste herrialdeetan galdu dira, baina guk gehienak gorde ditugu. Baletetik zenbait ekarpen hartu ditugu eta

s o s l a i a

Patxi Laborda trindarrak urte asko daramatza euskal dantzak eta haien inguruko herri ohiturak aztertzen. Grina horrek bultzatuta, oso gaztetatik afizio duena ogibide bihurtu du, eta Muga folklorea eta kultura enpresa sortu berri du beste bi bazkiderekin batera.

Labordak Principe de Vianak argitaratzen duen 'Etnografia eta etnologia kuadernotan' egin izan ditu kolaborazioak. Hala ere, egun euskal dantza eta baletaren arteko hartu-emanari buruzko ikerketa egiten ari da buru-belarri. Haren irudikoz, euskal dantzak asko eman dio baletari baina kontrako eragina ere izan da, eta hori frogatzeko Iparraldean dauden datuak biltzen ari da.

Baletaren azterketaz gain, Cabanillasko 'Paloteado' dantza eta Azkoiengo hainbat berreskuratzen dihardu Muga lankideekin. Hori aski ez dela, Arakil-Uharterako turismo bideo baten gidaria egiten ari dira.

guk ere eman diegu eta hori ez da gertatzen beste folkloretan. Galdu diren zenbait erritmo eta kolore guk bizirik ditugu. Inauterietan oso ongi antzematen da hori. Hemen museo txiki bat daukagu eta Europa osoan galdu dena hemen gorde dugu. Hori da guk dugun zortea. Gure arbasoek utzitakoa zaindu behar dugu. Garrantzitsuena herrietan mantentzea da, bertakoak diren herrietan, eta horretarako borrokatu behar dugu.

■ Nazioarteko jaialdiak jarraipenik izanen du?

Jaialdiak bi urterokoa izan nahi du. Aurten zer-nolako harrera izaten duen ikusi nahi dugu. Bi urte barru Duguna Dantza Taldearen 50. urteurrena da, eta hori ospatzeko eginen diren ekitaldiak aprobetxatuz bi urtero egiteko asmoa dugu. x

«Euskal folklorea eta herri dantzak ikusgarriak dira. Eskuartean oso emankorra den ikuskizuna daukagu eta Nazioarteko jaialdiak daukana ateratzeko balioko du»

BEKARIO!

Zaldi Eroa

